

Euskal presoen eskubideen eta konponbidearen alde

Agiri hau sinatzen dugun sindikatuok iritzi publikoari eta langile-klaseari helarazi nahi diogu Herrira herri-mugimenduaren aurka egindako operazioari buruzko iritzi bateratua, bate-tik, eta gertakari hori dela-eta elkarrekin emango dugun erantzunaren berri, bestetik.

Hasteko aipatu beharra daukagu hemen bilduta-ko erakundeok Herrirarekin normaltasunez ditugula harremanak, eta horri eutsi egingo diogula. Asko partekatu izan dugu, elkarrekin lan egin dugu eta gure artean erakundeen zein pertsonen arteko harremanak daude. Erakunde horretako hainbeste militante eta arduradun atxilotu izanak nahigabea eta haserrea eragiten digu. Horregatik, edozer baino lehenago, atxilotuekiko eta hauen senideeki-ko elkartasuna adierazi nahi dugu. Halaber, ez dugu ezkutatu nahi beldur garela azken orduotan egoitza polizialean jaso dezaketen tratua medio.

Erabat arbuiazen dugu ekintza judizial, polizial eta mediatiko hau gidatu duen erabaki politikoa. Izan ere, erabaki honek eskubide eta askatasun demokratikorik funtsezkoenak urratzen baititu. Herrira gurean erakunde aski ezaguna dugu: bere ekintza publikoa da; gure inguruko erakunde sozial eta politiko asko eta askorekin dago harremanetan, eta haiekiko lankidetzat bilatzen du; bere ekimen guztiek hiru ezaugarri izan dituzte, eta uneotan ezinbestekoa da horiek nabarmentzea: baketsuak izan dira, elkar ulertuz pluraltasuna izan dute hel-buru, eta betiere giza-eskubideen defentsa izan dute ardatz.

Horrenbestez, guretzat begi-bistakoa da bidega-bekeria honek helburu politiko bat, edo hainbat, duela. Lehena, ageri-agerikoa, euskal preso politiko-en eskubideen defentsa kriminalizatzea. Noiz, eta argitaratzekotan denean espainiar estatuak presoekiko ezarri duen zigorraren luzapen krudelari buruzko epaia. Kriminalizazioa medio espainiar gobernuak alde zuzenetik zuzitu nahi du bere jokabidea, giza-eskubideen auzitegi europarrari kargu hartuko bai-lioke estatu-arrazoiaren aurkako epai bat emanez gero.

Bigarrenik, operazio honekin sine die luzatu nahi dute itun antiterroristaren aro politikoa, hots, makrosumario eta ilegalizazioek markatu duten aroa. Gure herriko esparru zabal baten lan politikoa eragozteko da xedea, hark irtenbideen aldeko jarre-ra izanagatik, ataka antirrepresiboan kateatuta gera dadin eta bere garapena galarazte aldera. Horixe da estatuaren "immobilismo" delakoaren helburua:

Euskal Herrirako agenda bakarra aparatu guztien mobilizazio itsua da: errepresiboak, judizialak, insti-tuzionalak nahiz komunikabideetakoak.

Hirugarrenik, nabarmena iruditzen zaigu makro-operazio honen keaz estali nahi dituztela egun espainiar gobernuan dagoen alderdiak dituen kontak ezineko arazoak, esaterako, bi besterik ez aipatzearren, ustelkeria kasuak edota erabakitze-ko eskubidearen aldeko errebindikazio nazionalak gori-gori egotea. Ideia honen isla biribila da zein unetan datorren operazio hau, hain zuzen gober-nuak justiziak erreklamaturako torturatzailerak atxi-lotzea ukatu duenean.

Laugarrenik, uste dugu era honetako operazioe-kin saiatzen ari direla presoek auzia gutxi batzuren arazo bihurtzen. Horregatik, gogoratu beharra dau-kagu hemen bildu garen erakundeok preso eta errefuxiatuekiko eskubideekin zalantzarik gabeko konpromisoa hartu dugula, eta konpromiso horri ez diogula amore emango, estatua setaz saiatuagatik ere. Hain zuzen, operazioa nolabait gure aurka ere badoa, eskubide horien defentsan Herrirarekin lanean ari izan baikara azken aldion.

Horregatik, sinetsita gaude erantzun zabal eta irmoa bultzatu behar dugula bidegabeko operazio honen aurka. Atzo goizetik bertatik erantzuna ema-teko dozenaka ekimen izan da gure herrietan eta eskualdeetan. **Horiekin batera, hemen gauden antolakundeok iragartzen dugu Bilbon manifestazio nazionala izango dela datorren larunbatean, urriak 5, arratsaldeko 5.30etan, La Casillan hasita.** Gure helburua da espainiar estatuari helaraztea euskal jendarteak bidegabekeria hauekiko duen sentipena, eta gure elkartasuna adieraztea atxilotuekin, berehala libre utz ditzatela exijituz.

Ekitaldia deitzen dugun erakundeok lan egingo dugu mobilizazio honek aste honetan babesik zabalena izan dezan. Hots, lan egingo dugu Herrirak egiten duen gisan, "Tantaz tanta, gota a gota", guztion eskubide eta askatasunen defentsan elkar ulertzeko ahaleginez.

Honez gain, deialdi berezia egiten dugu lan mundutik erantzutera eta ostiral hone-tan, urriak 4, eguerdiko 12:00etan lantoki aurrean eta herriko plazetan egingo diren bilkuretan parte-hartzera animatzen ditugu langileak.

ATXILOTUAK ASKATU!

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU, CGT, CNT